

# IKASLE ETORRI BERRIAREN HASIERAKO EBALUAZIOA



# AURKIBIDEA


<b>Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>Zer eta nola ebaluatu? .....</b>	<b>4</b>
<b>Balorazio tresnaren ezaugarriak.....</b>	<b>6</b>
<b>Behaketa-balorazio tresna .....</b>	<b>8</b>
<b>Probak hainbat hizkuntzatan .....</b>	<b>13</b>
Adibideak .....	14
<b>Hasierako ebaluazioaren ondoren, zer?.....</b>	<b>18</b>
<b>Eranskina.....</b>	<b>19</b>

# SARRERA

Hasierako ebaluazioak ikasle etorri berriaren **Norbanako Jarduera Planaren abiapuntua** finkatu behar du. Balorazio hori egiteko ardura daukaten irakasleek (batez ere tutoreak, HIPlak eta Aholkulari/Orientatzaileak...) zehaztu behar dute ikaslearen egokitze-prozesua non hasten den.

Hainbat zailtasun dauzkagu, ordea, hasierako ebaluazio "akademikoa" behar bezala egiteko: alde batetik, ikaslearen familia-hizkuntza ulertu beharko genuke (amazigh, fula, wolof, punjabi...) edota eskolatzeko-hizkuntza (arabiera, frantsesa, errumaniera, txinera, urduera...); bestetik, orain arteko eskolatzeko-prozesuaren berri ere eduki beharko genuke, ikaslearen eskola-ohiturak, prozedurak,.. ikaslearen beraren egoera ahaztu gabe, noski, baita bere familiaren egoera sozial, ekonomiko eta emozionala ere.

Informazio zehatza eskuratuko badugu, hasierako ebaluazioa arreta handiz planifikatu behar da, oso garrantzitsua baita ikasleak **zer dakien eta zer egiten dakien** neurtu ahal izatea –ez zer ez dakien–, laguntza apur batez zer egiteko gai den neurtu ahal izateko.



## ZER ETA NOLA EBALUATU?

Hasierako ebaluazioak ikasle berriaren abiapuntua balioetsi behar duenez gero, kontuan izan behar ditugu eskola-dinamikara egokitzea erraztuko dioten **lan-ohitura eta trebezia akademikoak**, beroriek gabe motelagoa eta zailagoa izan baitaiteke prozesua.

Eskolatzeko-prozesua ondo bideratzeko eta azkarrago abiatzeko, beraz, baloratu beharreko hiru eremu hauek zehaztu daitezke:

1. **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.** Hizkuntza oinarri-oinarrizkoa da, bai sozializaziorako, bai gelako eta ikastetxeko ekintzetan parte hartu ahal izateko. Batetik, **ulermen-maila** neurtu behar da –bai entzunarena bai irakurriarena– eta, bestetik, **adierazpen-maila** –ahoz eta idatziz–.
2. **Matematikarako gaitasuna.** Zenbait gorabehera eta arazo hauteman daitezke kalkulua eta dedukziozko arrazoibide logikoa baloratzuz; betiere, hizkuntzaren pisua arinduta. Hortaz, zenbaki-serieak erabiliko dira, oinarrizko eragiketa aritmetikoak, problema errazen ebazpena, geometria, neurriak, taula eta grafikoen interpretazioa...
3. **Sozializazioa eta eskola-egokitzapena.** Ikerketek diotenez, gaitasun kurrikularrez gain, beste faktore batzuek ere eragin handia dute ikasle etorri berrien ibilbide akademikoan: **beharrizan afektibo** eta **emozionalak, identitatea** eraikitzeko prozesua, kideekiko harremanak, ingurukoengandik jasotzen dituen espektatibak... Ez dezagun ahaztu ikasle etorri berriaren eskolatzeko-prozesua arrakastatsua izango bada, ikastetxeak erantzukizun handia duela: ikasleei eta familiei **harrera** goxoa egin behar zaie, kideekin eta irakasleekin **harreman zabalak eta lagunkoiak sustatu**, horrela hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboak gara ditzaten. Zaila da, bestela, eskolari eta eskolan erabiltzen den hizkuntzari zentzua aurkitzea eta behar-beharrezkoak diren lotura afektiboak sortzea.

Diagnostikoa **behaketaren bidez** egingo da, bizpahiru astetan zehar. Epe hori nahikoa izan liteke lehen balorazio bat egiteko eta, bide batez, lehen hurbilketarako estrategiak saiatzeko: emozioak, jolasak, dantzak, hasierako agurrak eta harremanak... Beraz, lehen asteetako programazioak eta ikastunitateek helburu bikoitza izango dute: batetik, eskolarekiko eta hizkuntza berriarekiko lehen **hurbilketa** izatea eta, bestetik, ikasle berriaren **egoera** aztertzea.

Arlo akademikoa ez ezik–esan bezala, irakurriaren ulermen-maila bere eskolatzeko-hizkuntzan eta gaitasun instrumentalak (matematikarako konpetentzia, batez ere)–, hasierako balorazio batek beste arlo batzuk ere hartu behar ditu kontuan, hala nola ikasle etorri berriaren eskola-ohiturak, arlo sozio-afektiboa (sozializazio- eta egokitzapen-maila, jarrerak, antsietate-maila...), laguntza eskatzen badakien ala ez, ea laguntza apur batez bere gaitasunak erakusteko gai den, etab.

Ahal izanez gero, aintzat hartuko da, alde batetik, ikaslearen espediente akademikoa eta, bestetik, bere familiak emandako informazioa: zertan den trebea, zein jakin-min

duen, zein zaletasun... Beste hainbat errekurtsio ere erabilgarriak izan litezke: aurreko ikasturteetan erabili dituen eskola materiala ekartzeko eska dakioko (koadernoak, liburuak...), bere herriko kanta eta dantzak, besteak beste, erabil litezke beste gaitasun batzuk baloratzeko –eta, bide batez, alde emozionala lantzeko–.

Garrantzitsua da, oso, arlo akademikoa baloratzeko egingo dituen jarduerak (probak, ataza errazak) ondo kontestualizatuta egotea, eguneroko plangintzan txertatuta egotea, alegia, eta eskola-saioetan lantzen ari denarekin nolabaiteko lotura edukitzea. Arlo akademikoa baloratzeko ikasleak egingo dituen jarduera horiek laburrak izan behar dute nahitaez, errazak eta oinarriko gaitasunak neurtzera bideratuak. Ezin dira euskaraz izan (helburua ez da zer ez dakien neurtzea) eta, kasu askotan, gaztelaniaz ere ez. Ahal den heinean, bere familia- hizkuntzan edota eskolazte-hizkuntzan egin behar dira.



## BALORAZIO TRESNAREN EZAUGARRIAK

Behaketa-balorazioa egiteko tresnak honako atal hauek eduki behar ditu:

### 1. **Abiapuntua: Hasierako galdetegia ikaslearen datu pertsonalak eta datu akademikoak jasotzeko.**

Galdetegia familiak emandako datuekin beteko da. Hala ere, ikasleak berak berari buruzko datu errazak erantzun litzake, gelan egingo den hasierako atazen emaitza gisa (norbere burua aurkezten, jatorria adierazten...).

Ikasleak ulertzen duen hizkuntzan egon behar du (ohikoenak: gaztelania, ingelesa, frantsesa, errumaniera, arabiera, txinera, urduera...). Batetik, datuak errazago jasoko dira eta, bestetik, ikaslearengana hurbiltzeko lehen saiakera ere bada. "Onartuago" sentituko da.

Ikasleak ez baditu ulertzen proposatutako hizkuntzak, beste aukera batzuk aztertuko dira: bere hizkuntza dakien beste ikasleren bat, sarean dauden hiztegi eta itzultzaileak, irudi bidezko hiztegiak...

### 2. **Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia:**

**Ikaslearen jatorrizko hizkuntzan egin behar dira jarduera hauek.**

#### • **Irakurketa- eta idazketa-maila:**

- Oinarrizko hiztegia. Zenbait hizkuntzatan idatzitako galdera laburrak eta irudiak dituzten orriak (plastifikatuak hobeto) erakutsiko zaizkio ikasleari. Honelako galderak izango dira, adibidez: "Zer da hori?", "Zer egiten ari da ...?"...
- Letrak eta hitzak irakurtzeko eskatu: irakurri ahala, seinalatzeko ere eskatu.
- Testu labur baten ulermen-maila baloratu: lehenik ozenki irakurri eta, gero, galdera batzuei erantzun.
- Diktaketa labur baten bidez: irakasleak poliki eta intonazio egokiz irakurriko du, behar denean errepikatuz.

#### • **Entzundakoaren ulermena:**

Ahozko testu labur baten ulermen-maila baloratu: bideo labur bat bere hizkuntzan, "Google translate" baliatuta... eta galderei erantzun.

- **Ahokotasuna:**

Oso zaila da guk baloratu ahal izatea eta, beraz, bere familiak ematen digun informazioa baliatu beharko genuke: “gauzak ondo azaltzen ditu”, “bere adinerako ondo menderatzen du hizkuntza, jatorrizko besteek duten mailan...” edo “zailtasunak ditu bere familia-hizkuntzan gauzak ondo azaltzeko” ....

### 3. Matematikarako kompetentzia:

**Ikaslearen jatorrizko hizkuntzan egin behar dira jarduera hauek. Testu gutxikoak eta jarduera esanguratsuak izan behar dute:**

- **“Serie logikoak” dituzten fitxak** eman, ikasleen arrazoiketa logikoa baloratzea ahalbidetuko dutenak.
- **Kalkulu eragiketak.** Zailtasun-maila ezberdinak dituen ariketak jarri, matematikako irakasleen ustez ikasle berriaren aurretiazko jakintzen erreferentzia eman dezaketanak.

Oro har, lehentasuna emango zaie hizkuntzaren pisu txikia duten eta arrazoiketa eskatzen duten baliabideei: kalkulua, orientazioa, marrazketa eta plastika... Horren bidez jakin dezakegu laguntza apur batez zer egiteko gai den.

Item guztietan feedback-a emango zaio ikasleari: berak emandako erantzunetan oinarrituta, laudorioak edota zuzenketak, laguntza txikiak erantzunak birpentsatzeko... Ikasleak sentitu egin behar du ez garela epaitzen ari, jarduera horiek ez direla zigortzeko, geroago hobeto lagundu ahal izateko baizik.

### 4. Sozializazioa eta eskola-egokitzapena:

**Honako aldagai hauek aztertu behar ditu eskola-egokitzapenak, besteak beste:**

- Ikasle etorri berriaren **beharrizan afektibo** eta **emozionalak**
- **Nortasun** eta **identitate anitza** eraikitzekeo prozesua
- Berdinen arteko eta helduekiko **elkarbizitza** eta **harremanak**
- **Moldaera** eskola-eremura: elkarlana, ikasketetarako **estrategiak...**
- Familiaren eta inguruko baliabideen **inplikazio-maila** eta **lankidetzak**.

Balorazio jarduerak oharrak jasotzeko atal bat izango dute, interesgarriak izan daitezkeen datu eta informazioak jasotzeko, hala nola lankidetzarako prestasuna, antsietate-maila, etab.

## BEHAKETA-BALORAZIO TRESNA

Behaketak eta haren baitako balorazioak item zehatzak behar ditu aurrean adierazitako esparruei lotuak. Itemen behaketa egiteko, ikasleen jatorrizko hizkuntzan idatzitako proba ereduak behar dira (azpiko helbideetan topatu daitezke).<sup>1</sup>

### 1. Ikaslearen datu pertsonalak eta akademikoak:

IKASLEAREN DATU PERTSONALAK		
Izena	1. abizena	2. abizena
Etxeko izena edo ezizena	Jaiotze data	Jaioterria (herria, estatua)
FAMILIA DATUAK		
Norekin bizi zen bere lurraldean?	Non bizi da hemen?	Zenbat denbora darama hemen?
Norekin bizi da hemen?	Ama, aita edo tutorearen izena?	Aita, ama edo tutorearekin harremanetarako hizkuntza*

\*gure hizkuntzetan ezin bada, zehaztu nola egingo den: itzultzailea, familiakoren bat ...

<sup>1</sup>Ikasle heldu berrien hasierako ebaluazioa egiteko orientabideak eta tresnak (Inma Ortega)  
[tps://www.dropbox.com/s/micblaps03rqbxw/Hasierakoebaluaz.doc?dl=0](https://www.dropbox.com/s/micblaps03rqbxw/Hasierakoebaluaz.doc?dl=0).



HIZKUNTZARI LOTUTAKO DATUAK	
<p><b>Familia hizkuntza(k)</b></p> <p><b>Hizkuntza:</b> .....</p> <p>Entiende Habla Lee Escribe</p> <p><b>Hizkuntza:</b> .....</p> <p>Entiende Habla Lee Escribe</p>	<p><b>Ezagutzen dituen beste hizkuntzak*</b></p> <p><b>Hizkuntza:</b> .....</p> <p>Entiende Habla Lee Escribe</p> <p><b>Hizkuntza:</b> .....</p> <p>Entiende Habla Lee Escribe</p>
DATOS SOBRE LA ESCOLARIZACIÓN	
<p><b>Escolarización anterior</b></p> <p><b>Centro educativo anterior:</b></p> <p><b>Nivel cursado:</b></p> <p><b>¿Ha sido continuo su proceso de escolarización?</b></p> <p><b>Área que más le gusta:</b></p> <p><b>Área que mejor se le da:</b></p> <p><b>Área en la que tiene dificultades:</b></p>	<p><b>Escolarización actual</b></p> <p><b>Fecha de incorporación a nuestro Sistema Educativo:</b></p> <p><b>Fecha de incorporación a nuestro centro:</b></p> <p><b>Curso del alumno en el centro:</b></p>
PROCESO DE ADAPTACIÓN	
<p><b>¿Cómo lleva los cambios el alumno/a?</b></p>	<p><b>Adaptación a nuestro Sistema Educativo y cultura:**</b></p>

\* Lengua de escolarización.

\*\* ¿Qué característica(s) de su cultura debemos tener en cuenta para adaptarlas a nuestro sistema? (porque no coinciden con las nuestras, por ejemplo).

## 2. Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia:

	ADIERAZLEAK	BAI	EZ	OHARRAK
<b>Hizkuntza idatziari buruzko ezagupenak</b>	Liburuaren antolaketa ezagutzen du: azala, izenburua, testua, irudia. Hasiera, bukaera...			
	Letrak eta beste forma grafiko batzuk (zenbakiak, ikurrak) bereizten ditu.			
	Letrak, hitzak, esaldiak bereizten ditu.			
<b>Gure idazkera sistema</b>	Idazketaren norabidea: ezkerretik eskuinera, goitik behera.			
	Alfabetoa: letren izenak. Letraren eta soinuaren arteko asoziazioa.			
	Puntuazio-markak. Letra motak: larriak / xeheak.			
<b>Ulermena (ahoz zein idatziz) eta idazmena</b>	Ohiko testuak, ahozkoak nahiz idatziak, ulertzen ditu: ipuina, oharra, azalpena...			
	Ohiko testuen funtzioa ezagutzen du.			
	Ahoz goran ondo irakurtzen du.			
	Idazteko ohitura eta erraztasuna du: askotariko testuak idatz ditzake (oharra, ipuina, deskribapena...).*			
	Idazteko konbentzioak erabiltzen ditu: oinarrizko ortografia, puntuazioa.			
<b>Ahazkotasuna</b>	Hizkiak edo hitzak ondo ahoskatzen ditu.			
	Entzundakoa errepikatzeko gai da.			
	Doinua imitatzen du.			
<b>Estrategiak</b>	Zailtasunak dituenean, galdetzen du.			
	Irudiez, keinuez, gorputz adierazpenaz... baliatzen da ulertzeko.			
	Testuaren azpiatalak, tituluak... aztertzen ditu.			
	Irakurketa-prozesua kontrolatzen du: atzera egiten du berriro irakurtzeko.			
	Liburutegian ondo moldatzen da.			

\*Utilizar Google translate.

### 3. Matematikarako kompetentzia:

	ADIERAZLEAK	BAI	EZ	OHARRAK
<b>Aritmetika</b>	Zenbakiak irakurri, idatzi eta ordenatzen ditu.			
	Ikur matematikoak identifikatzen ditu.			
	Eragiketa matematikoak egiten ditu.			
<b>Neuria</b>	Neurri-unitate ohikoenak ezagutzen ditu: - luzera - edukiera - masa - denbora			
	Neurketak egiteko tresnak erabiltzen ditu.			
	Gure diru-sistema ezagutzen du.			
<b>Geometria</b>	Oinarrizko forma geometrikoak ezagutzen ditu.			
<b>Problemen ebazpena</b>	Bizitza errealeko egoerei erantzuna emateko problemak ebazten ditu (testu gutxikoak eta errazak).			



#### 4. Sozializazioa eta eskola-egokitzapena:

	ADIERAZLEAK	BAI	EZ	OHARRAK
<b>Sozializazioa</b>	Autonomoa da.			
	Behar duenean laguntza eskatzen du.			
	Bere emozioak adierazten ditu.			
	Ikaskideekin harremanak hasten ditu.			
	Eskolako lanetan besteekin ondo moldatzen da.			
	Gelaz kanpoko egoeretan (patioan, jantokian...) ondo moldatzen da.			
	Ahalegintzen da bere iritzia adierazten.			
<b>Eskola-egokitzapena</b>	Ikastetxea ezagutzen du eta arazorik gabe ibiltzen da bertan.			
	Eskolako ohiturak jarraitzen ditu.			
	Eskolako materialak erabiltzen badaki.			
	Eskolako lanetan arreta jartzen du.			
	Eskolako lanetan moldatzen da.			
	Irakasleek eskatutako egitekoetara moldatzen da.			
	Eskolako jardueretan interesa adierazten du.			

## PROBAK HAINBAT HIZKUNTZATAN

- **Katalunian argitaratutakoak:**

<http://xtec.gencat.cat/ca/projectes/alumnat-origen-estranger/alumnatnou/avaluacio/inicial2>.

Proba hauetan, besteak beste, matematikarako konpetentzia neurtzeko baliabide egokiak topa daitezke, problemen ebazpenak batez ere.

- **Kataluniako Harrera Gelako Probak:**

<http://xtec.gencat.cat/ca/projectes/alumnat-origen-estranger/alumnatnou/avaluacio/acollida/secorientacions/>.

- **Andaluzian ere argitaratuak dira hasierako ebaluazioa egiteko zenbait proba:**

[http://agrega.juntadeandalucia.es/visualizar/es/es-an\\_2013111112\\_9130931/false](http://agrega.juntadeandalucia.es/visualizar/es/es-an_2013111112_9130931/false).

- **Frantziako Hezkuntza Ikuskaritzak zehaztu egiten du nola egin Hasierako Ebaluazioa** (<http://ien-blancmesnil.circo.ac-creteil.fr/spip.php?article89>): “pasarela” deitzen dutena zehaztu eta zenbait proba hizkuntza askotan jarrita ematen dituzte.

Besteak beste, CASNAV izeneko sare instituzionalean aurkituko ditugu:

- **Estrasburgo:** <https://www.ac-strasbourg.fr/pedagogie/casnav/enfants-allophones-nouvellement-arrives/ressources-premier-degre/outils-de-positionnement2>.
- **Créteil:** <http://casnav.ac-creteil.fr/spip.php?article658>.
- **A ix-Marsella:** [http://www.pedagogie.ac-aix-marseille.fr/jcms/c\\_142325/es/evaluations](http://www.pedagogie.ac-aix-marseille.fr/jcms/c_142325/es/evaluations).

- **Matematikako ezagutzak** neurtzeko proba-eredu batzuk hainbat hizkuntzatan:

<http://galileo.crdp-aix-marseille.fr/mathsenaf/>.



# ADIBIDEAK

## 1. ADIBIDEA: Alumnat nouvingut (Catalunya)

Ejemplo prueba comprensión lectora

Lee este cartel y contesta a las preguntas:



1.- He llegado al espectáculo de delfines a la 1. ¿ A qué hora es la próxima actuación?

- a.- A las 12:00
- b.- A las 14:00
- c.- A las 13:00
- d.- A las 16:00

Ejemplo prueba matemáticas, resolución de problemas

11. حل کریں

550 € 	235 € 	150 € 	..... € 
= 1520 €			
تیلی ویژن کی کیا قیمت ہے؟			

	= 400 €		= ..... €
--	---------	--	-----------

12. شکل اور اعداد میں تعلق قائم کریں

Ejemplo prueba expresión oral

1.- Explica alguna de las cosas que pasan en la lámina.

El profesor señalará la situación los niños y niñas que juegan en el parque infantil y dirá

al alumno / a: Fíjate en esta parte del dibujo. ¿Qué están haciendo estos niños y estas niñas?



## 2. ADIBIDEA: Casnav - Académie Strasbourg (Frantzia)

### Ejemplo de prueba de comprensión lectora

1- Lee bien estas pequeñas historias y dibújalas:

- a) Dibuja un niño: lleva pantalón verde, abrigo azul y zapatos amarillos. Juega al fútbol con un balón rojo.
  
- b) Dibuja un monstruo de cuatro ojos amarillos, tres bocas azules, seis orejas puntiagudas de color verde y una gran nariz roja. Tendrá cuatro brazos peludos, ¡pero una sola pierna! ¡Será verdaderamente horrible!
  
- c) Dibuja un coche azul. Delante del coche azul, hay una bicicleta roja. Detrás del coche azul, hay un camión amarillo.

2.- Lee bien este texto:

Una bella mañana de mayo, dos caracoles deciden hacer una carrera.  
 - Vamos hasta la lechuga y regresamos, dice Héctor, el caracol gris.  
 - ¡De acuerdo, responde Néstor, el caracol blanco, vamos!  
 Nuestros dos amigos avanzan lentamente. Las horas pasan... Anochece...  
 ¿Quién ganó la carrera? Nadie. ¡Se durmieron los dos dentro de la lechuga!

Lee las preguntas y rodea la respuesta correcta:

- |  |  |
|--|--|
| <p>a) ¿De qué color es Néstor?</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1- Es pardo.</li> <li>2- Es gris.</li> <li>3- Es blanco.</li> <li>4- Es verde.</li> <li>5- No sé.</li> </ol>   | <p>c) ¿Quién ganó la carrera?</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1- Néstor</li> <li>2- Héctor.</li> <li>3- Ninguno de los dos.</li> <li>4- Los dos.</li> <li>5- No sé.</li> </ol>  |
| <p>b) ¿Qué quieren los dos caracoles?</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1- Quieren comer la lechuga.</li> <li>2- Quieren lavarse.</li> <li>3- Quieren hacer una carrera.</li> <li>4- Quieren ver a unos amigos.</li> <li>5- No sé.</li> </ol> | <p>d) Escoge un título para esta historia:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1- Un caracol enfermo.</li> <li>2- El perro y el caracol.</li> <li>3- La carrera de los caracoles.</li> <li>4- La lechuga mágica.</li> <li>5- No sé</li> </ol> |

Ejemplos de prueba de matemáticas

1.- Escribe los números que faltan:

- 0 - 1 - 2 -  - 4 - 5 -  - 7 -  - 9 -
- 95 -  -  - 98 - 99 -  -  - 102 -
- 997 -  - 999 -  -  - 1002 -
- 18546 -  -  -  -  - 18551 -
- 0 - 2 - 4 - 6 -  -  -
- 100 - 99 - 98 -  -  -
- 0 - 5 - 10 -  -  -

2. Cálculo:

$8 + 9 = \dots\dots\dots$	$30 + 50 = \dots\dots\dots$	$100 + 20 + 7 = \dots\dots\dots$	$84 + 13 = \dots\dots\dots$
$\begin{array}{r} 5 \\ + 2 \\ \hline \dots\dots\dots \end{array}$	$\begin{array}{r} 52 \\ + 44 \\ \hline \dots\dots\dots \end{array}$	$\begin{array}{r} 35 \\ + 86 \\ \hline \dots\dots\dots \end{array}$	
	$\begin{array}{r} 168 \\ + 297 \\ \hline \dots\dots\dots \end{array}$	$\begin{array}{r} 36 \\ 154 \\ + 625 \\ \hline \dots\dots\dots \end{array}$	

3. Resuelve:

Si necesito comprar todo, ¿cuánto me costará?

Tengo 20 euros.

... y he comprado:

¿Cuánto dinero me devolverán?

€



**Situación concreta / Implementación**

**Material:** folio, tijeras y cola

**Consigna:** ordenar los objetos del mayor al menor

**Criterios de éxito:** los objetos se han ordenado en el orden exigido

**Ejemplo a proponer al alumnado:**

The diagram illustrates two sorting exercises. The first exercise shows four circles of varying diameters. An arrow points from the circles to a horizontal line, and below the line, the circles are shown again, but in ascending order of size from left to right. The second exercise, labeled 'Exercice :', shows four compass roses of different sizes. An arrow points from the compass roses to a row of four empty rectangular boxes numbered 1, 2, 3, and 4 from left to right, indicating where the student should place the compass roses in descending order of size.

**Análisis de resultados:**

- **Si no hay respuesta:** proponer alternativas con ejemplos variados, construcción de torres, manipulación de objetos reales...
- **Si hay respuesta parcial:** proponer comparación de tamaños, medidas efectivas y reales...

## **HASIERAKO EBALUAZIOAREN ONDOREN, ZER?**

Hasierako ebaluazioak, aurrean esan bezala, denbora tarte bat behar du, bizpahiru astekoa; izan ere, nagusiki, behaketan dago oinarritua. Hala ere, sei hilabeteren buruan, esaterako, gelako jarduerak eta atazak burutu ahala, behaketa egiteko baliatu ditugun probak, ikasleak gelan landu duenaren arabera proposatu ditzakegu, baina, oraingoan, euskaraz, aurrerapena neurtzeko.

# ERANSKINA

## 4. FITXA: HASIERAKO EBALUAZIOAREN ONDORIOAK ETA LEHEN PROPOSAMENAK

Balorazioa egiteko ikasleak erabili duen hizkuntza: . . . . .	
Alderdiak	Oharrak
<b>Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Ahozkoaren ulermena</li> <li>● Irakurriaren ulermena</li> <li>● Ahozko adierazpena</li> <li>● Idatzizko adierazpena</li> </ul>	
<b>Matematikarako kompetentzia</b>	
<b>Sozializazioa eta eskola-egokitzapena</b>	

### Norbanako Jarduera Plana egiteko PROPOSAMENAK

ESKU-HARTZEKO GOMENDIOAK/ *Recomendaciones más relevantes para la intervención educativa en este curso escolar. Hauek guztiak islatuko dira Norberaren Jarduera Planean*

**INDARTU EDOTA EGOKITU BEHARREKO EREMUAK /** ÁMBITOS QUE SE CONSIDERA NECESARIO REFORZAR Y/O ADAPTAR

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak*  
sarearen katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: 1.<sup>a</sup>, 2020ko ekaina

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza Saila

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua: ekipoPo